

## EUSKARAREN POZAK ETA PENAK

Aurtengo irailaren 25ean aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzako Kulturako sailburu den Miren Azkarate andereak euskararen une honetako egoera azaltzen duen *Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta*. Bertan, 2001eko erroldako datuak abiabidetzat hartuz Euskal Herri osoko datu soziolinguistikoak biltzen dira. Inkesta hau orain arte egin den hirugarren inkesta izanik, hamar urtean zehar (1991-2001) izan den bilakaeraren isla ere badugu.

Ekitaldi horrek oihartzun zabala izan zuen komunikabideetan, batez ere BERRIA egunkarian<sup>1</sup> (2003-IX-26). Egin-eginean ere, aurreko azalean EUSKALDUNAK GERO ETA GEHIAGO DIRA, BAINA DAKITENEK GUTXIAGO EGITEN DUTE izenburua jarriz eguneko berri nagusitzat jotzeaz gainera, lau orrialde oso eskaintzen dizkio, inkesta horretako datuak ahalik eta erarik ulergarrienean eskaintzen saiatuz.

Asier Iturriagaetxebarriak eta erredakzioak eskaintzen dituzten datuen aurkezpen zabal horretan, orrialde bakoitzari izenburu esanguratsu bana jartzen diote, laburpen modura, letra larriz: 1) EUSKALDUN GEHIAGO IZAN ARREN, DAKITENEK

---

<sup>1</sup> 2003ko irailaren 26an. BERRIAk lau orrialde eskaintzen dizkio gai honi eta lanaren laburpena egin eta datu esanguratsuenak laukietan eta azalpenetan bilduz egokiro aurkezten ditu. Irakurleak bertan aurki dezake informazio zabala eta interesgarria.

GUTXIAGO EGITEN DUTE (AEEen hobera egin du euskarak, Nafarroan bere horretan jarraitzen du eta Iparraldean beherako joera dauka). 2) Nafarroa: HERENAK, EUSKARA SUSTATZEAREN AURKA (orain hamar urte baino euskara gehiago egiten da Nafarroan, nahiz eta herritarren %37 bultzatzeko neurrien aurka egon). 3) Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: GERO ETA AHULAGO EUSKARA (azken hamar urteetan, 14.000 euskaldun galdu dira; hala ere, gazteenen artean galtze prozesua gelditu egin dela dirudi). 4) Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia: EUSKALDUN BERRIEI ZOR ZAIE IGOERA (duela hamar urte baino 110.000 elebidun gehiago dago; euskararen erabileraren hazkundera, osterara, motelago doa).

Ale honetako zer idatzi aztertzen ari nintzela, ustekabeen eskuratu izan dut, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak txukuntxukun lau hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez) argitaratu berri duen *Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta* deritzan liburuxka<sup>2</sup>. Bertan inkestako datuak laukietan, lurraldez lurralde banatuta, koloretan oso txukun eskaintzeaz gainera, zenbait gogoeta ere egiten dira. Horrela, datuen argitalpen laburra egiterakoan emaitzak hotz-hotzean eskaintzea alde batera utziz, euskararen azken hamar urte hauetako bilakaera hurbilagotik aditzeko hausnarketak ere eskaintzen dizkigu.

Aipaturiko liburuxka horretan datu oso ugariak eta zehatzak eskaintzen zaizkigu euskarak Euskal Herri osoan gaur egun duen egoerari buruz. Osozko datuak aurrez aurre jartzeaz gainera, lurraldez lurraldekoak ere eskaintzen dira. Amaieran, aurkeztutako datuetatik atera daitezkeen ondorioak jasotzen dira “Ondorioak” (*Euskararen jarraipena*) deituriko atalean.

<sup>2</sup> *EUSKERAREN JARRAIPENA III (2001): EUSKAL HERRIKO SOZIOLOGIKAKO INKESTA* deituriko liburuxka hau Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburutzaren ardurapean Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiak argitaratua izan da. Bertatik jaso ditugu lan honetan kurtsibaz eskaintzen diren testuak.

Bertako baieztapen batzuk zalañtzan jartzekoan baldin bada dira ere, orokorrean azterketa zehatza eta argia egiten dela aitortu behar. Lerro hauetan laburbilduz eskaintzen saiatu naiz.

Atal horri egiten dioten sarreran, besteak beste, honelako aurkezpen garbia egiten zaigu: “

*“Euskal Herrian, euskaraz eta mundu zabalean indartsuenetarikoak eta hedatuenetarikoak diren beste bizkuntza bitan bitz egiten da, gaztelaniaz eta frantsesez, bain zuzen ere. Baina euskarak, gaztelaniak eta frantsesak duten balioa eta indarra oso desberdinak dira.*

*Euskal Herriko egoera soziolinguistikoan aldeak daude lurralde batetik bestera: eremurik euskaldunenak Nafarroako iparraldea, Ipar Euskal Herriko barnealdea, Gipuzkoako eta Bizkaiko ekialdea dira; erdaldunenak berriz, Araba, Bizkaiko mendebaldea, Iparraldeko kostaldea eta Nafarroako hegoaldea. Euskal Herriko hiriburuak edo metropoliak ere, hau da, Bilbo, Gasteiz, Iruñea eta Baiona (Donostia salbuespena da) ia erabat erdaldunak dira”.*

Euskararen gaur egungo egoeraren aurreko aurkezpena egin ostean, datu orokor hori zehaztera jotzen da:

*“Badira bai, euskara nagusi den hainbat eta hainbat herri txiki baina Euskal Herriko biztanleriaren gutxiengoa bizi da gune soziolinguistikorik euskaldunenetan eta bertan ere euskarak ez du eguneroko bizimodurako balio-indar erabatekorik, ez behintzat, oro har, gaztelaniak Hego Euskal Herrian eta frantsesak Ipar Euskal Herriko bazterrik gehienetan duten parekorik edo antzekorik”.*

Ondoren, euskarak Euskal Herri barruan egoera administratibo oso desberdinak dituela eta horrek duen garrantzia gogoratzen digu:

*“Euskara ofiziala da Euskal Autonomia Erkidego osoan duela hogeitaz geroztik eta legea euskararentzat lagungarria da arlo gehienetan; Nafarroako lur zati batean ere ofiziala da, zertxobait geroztik; baina oraindik ez da ofiziala ez Ipar Euskal Herrian, ezta Nafarroako lur zatirik handienean*

*ere. Hortaz, euskaraz bizitzeko eskubidea aitortzeko, eremu bori irabazteko bide luzea dago egiteko oraindik”.*

Jarraian euskararenganako jendeak duen jarrera desberdina ere aipatzen digu, garrantzi oso handikoa izango baita euskararen aldeko edozein plangintza proposatzerakoan:

*“Euskararen erabilera normalizatzeko neurri eraginkorrak hartzearekiko herritarren jarrera ere ez da bera lurralde guztietan, ezta helburu horrekin antolatutako ekintza nabiz elkartzeen presentzia eta indarra ere. Eguneroko praktikan, euskararen alde zer edo nola egin nahi den aztertzeko, hiztunak elkarrenganatzeko, pertsuasio moralez edo intelektualez aurrera urratsak egiteko edota presio-bide sendoak eratzeko eta aplikatzeko antolatutako gizarte-indarrek ez dute, ez Nafarroan, ez Ipar Euskal Herrian, Euskal Autonomia Erkidegoan duten besteko adostasun mailarik eta eraginik”.*

Ondoko lerroetan herri-agintariek izan duten jarrera desberdina dakarkigu gogora, horrek eragin nabarmena izan duela euskarak azken urte hauetan izan duen bilakaeran nabarmenduz:

*“Bestalde, hiztun berriak erabateko ez ezik goi-mailako gizarte-esparruetan euskararen erabilera zabaltzeko eta indartzeko ere herri-aginteez azken hogeitaz urteotan indarrean jarritako politikak ere oso desberdinak izan dira nola eginiko abaleginari hala iraupenari begiratu gero Euskal Autonomia Erkidegoan, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroako Foru Komunitatean.*

*Hortaz, euskararen balioa eta indarra arras desberdinak dira lurralde batetik bestera: euskara nabarmen egiten ari da gora Euskal Autonomia Erkidegoan; behera, Ipar Euskal Herrian; eta ez gora, ez behera Nafarroako Foru Komunitatean”.*

Aurkezpen orokor hori egin ostean, azterketa zehatza eskaintzen digu arlorik arlo. Lau zutabe nagusiren inguruan biltzen ditu liburuxka osoan zehar lurraldez lurralde koloretako laukietan eta zenbakietan eskainitako datu ugariak. Horrela, batik bat, euskarari dagozkion hizkuntza-gaitasuna, familia bidezko transmisioa, erabilera eta jarrerak aztertzen dira, besteak beste, honako hauek irakur ditzagula:



## 1. Hizkuntza-gaitasuna

Lehenengo eskaintzen zaizkigun datuak euskararen ezagutzari dagozkionak dira. Zenbat eta hiztun gehiago izan hizkuntza batek hainbat eta baliabide gehiago izango dituen ez iraupena ziurtatzerakoan, eremu hau aztertzea gainerako azterketa guztien ate edo oinarri bilakatzen zaigu. Honako datu hauek eskaintzen dizkigu:

HIZKUNTZ GAITASUNA HERRIALDEZ HERRIALDE

HIZTUN MOTAK	NAFARROA(1)			IPARRALDEA(2)			E.A.E.(3)		
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
Datu zehatzak	EE	EM	EEE	LB	BAM	BN/Z	A	B	G
Erdaldun elebakarrak	59,2	83,8	96,5	57,1	82,9	60,9	75,5	64,9	42,5
Elebidunak	07,5	06,5	01,3	28,5	08,8	24,0	13,4	22,4	48,0
Elebidun hartzaileak	33,3	09,6	02,2	15,5	08,3	15,1	11,1	12,6	09,5
Datu orokorrak		%			%			%	
Erdaldun elebakarrak		83,1			63,4			59,2	
Elebidunak		10,3			24,7			29,4	
Elebidun hartzaileak		06,6			11,9			11,4	

(1): **EE**: eremu euskalduna; **EM**: eremu mistoa; **EEE**: eremu ez euskalduna

(2): **LB**: Laburdi barnealdea; **BAM**: Baiona-Angelu-Miarraitz; **BZ**: Nafarroa Beherea / Zuberoa

(3): **EAE**: Euskal Autonomia Erkidegoa; **A**: Araba; **B**: Bizkaia; **G**: Gipuzkoa

*“Euskal Herrian 1966a baino lehen jaiotakoan artean, elebidunak %22,2 ziren 1991n, elebidun hartzaileak %5,2 eta erdaldun elebakarrak %72,6. Hamar urte geroago, espero zitezkeen moduan, kolektibo horren emaitzak oso antzekoak dira, %22,3, %7,9 eta %69,7, hurrenez hurren.*

*1966 baino beranduago jaiotakoan artean, hots, egun 16 eta 35 urte bitartean dituztenetatik, ordea, elebidunek eta elebidun hartzaileek gora egin dute (%31,9 eta %16), batez ere Euskal Autonomia Erkidegoan (%38,7 eta %18,8), milaka eta*

*milaka gaztek euskara ikasi duelako. Egun 16 eta 24 urte bitartean dituzten gazteen emaitzak are positiboagoak dira: %35,6 eta %17,6 Euskal Herrian eta %48,5 eta %20,2 Euskal Autonomia Erkidegoan. Lurralde honetan iraultza linguistikoa jazo da azken urteotan (jaiotze-tasak bain behera egin izanagatik ez da gizarte osoan gehiago nabari bizkuntza-gaitasunean gertatutako aldaketa itzela).*

*Ipar Euskal Herrian, 1966az geroztik jaiotakoan artean dagoen elebidunen ehunekoa aurretik jaiotakoan artean zegoenaren berenera iristen da ozta-ozta (%12,1 vs. %34,4). Hortaz, galera handia geratu da. Alabaina, badirudi galera bere horretan geratu dela azken urteotan.*

*Aldi berean, Nafarroa elebidunak eta elebidun hartzaileak irabazten ari da poliki-poliki (%9,5 eta %4,1 izatetik %12,9 eta %5,1 izatera pasa baitira).*

*Alabaina, Euskal Autonomia Erkidegoko irabazia erlatibizatu beharra dago. Egia da milaka eta milaka elebidun irabazten ari dela baina hori bezain egia da irabazirik handiena erdaraz euskaraz baino errazago mintzo diren elebidunei zor zaiela nagusiki:*

- *Egun, 35 urtetik gora dituztenen artean euskal elebidun funtzionalak, hots, euskaraz erdaraz baino errazago mintzo direnak biztanleria osoaren %8,7 dira; 16 eta 35 urte bitartekoetan, aldiz, %7,5 dira, zertxobait gutxiago beraz.*

- *Elebidun funtzional orekatuak, euskaraz erdaraz bezalatsu hitz egiten dutenak, alegia, %6,6tik %10,4 izatera pasatu dira.*

- *Eta erdal elebidun funtzionalak, hau da, erdaraz euskaraz baino errazago mintzo direnak %9,5 izatetik %20,8 izatera pasatu dira.”*

*Benetan datu kezagarriak, Euskal Autonomia Erkidegoan ikasleen artean %48,5 elebidun egin direlarik iraultza bat gertatu dela esaten bada ere. Argi nabari da, azken puntuan agiri denez,*

atzeraka ari garela Herrialde guztietan elebidun funtzionalak %6,6tik %10,4 izatera etorri diren bitartean, erdal elebidun funtzionalak %9,5etik %20,8ra heldu dira eta.

## 2. Familia bidezko transmisioa

Azken urte hauetan, behin eta berriro entzun izan dugu gureak egin duela transmisio-katea hautsiz gero. Hizkuntzaren bizitzan ezinbesteko baldintza omen da familia bidezko transmisioa ziurtatzea. Hain hedatua eta landua izan zen latina galdu baldin bazen, hainbatetan, transmisio-biderik ez zuelako izan omen zen. Komunikabide hutsa izateko ikasia den hizkuntza hondamendirantz omen doa. Esperantoa ere ezarri nahi izan da behin eta berriro. Familia bidezko transmisiorik gabeko bide hori hizkuntzaren barneko berezko joeraren aurkakoa gertatzen dela dirudi. Beraz, transmisioari dagokion arlo hau hain garrantzitsua izanik ikus dezagun zer ageri zaigun inkesta horretan:

*“Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa edo jarraipena aztertuz gero, begibistakoa da, azken mende honetan, euskaraz Euskal Herri osoan jasan duen atzerapena: 35 urtetik gora dituztenen artean lehen hizkuntza euskara bakarrik dutenak %19,9 dira. Adin horren azpitik, berriz, %11,8 baino ez dira, ozta-ozta erdiak baino gehixeago baino ez.*

*Galerak hiru lurraldeetan gertatu dira: Ipar Euskal Herrian %28,7tik %15,2ra; Euskal Autonomia Erkidegoan %21,7tik %13ra; eta Nafarroan %8,8tik %5,3ra.*

*Bestetik, lehen hizkuntza euskara eta erdara, biak batera izan dituztenak, %4 izatetik %7 izatera pasa dira Euskal Herrian. Igoerak hiru lurraldeetan gertatu dira: %4tik %7ra EAEn; %3,7tik %5,4ra Nafarroan; eta %4,9tik %9,3ra Ipar Euskal Herrian.*

*Guraso biak euskaldunak izan direnean irabaziak geratu dira euskararen transmisioan, EAEn eta Nafarroan: lehen hizkuntza euskara izan dutenak %83,7 izatetik %86,7 izatera pasatu dira, lehenengo kasuan, eta %66,3 izatetik %76,8 izatera bigarreanean. (...) Aitzitik, Ipar Euskal Herrian, lehen hiz-*

*kuntza euskara izan dutenak %73,1etik %52,7ra jaitsi dira eta lehen hizkuntza euskara eta frantsesa izan dituztenak %10,3tik %24,9ra igo.*

*Ostera, euskara aitak ala amak bakarrik dakienean erdararekin batera gertatu den euskararen transmisioak hiru lurraldeetan egin du gora: %34,1etik %49,9ra EAEn; %23tik %63,4ra Nafarroan; eta %16,5etik %23,9ra Ipar Euskal Herrian.*

*Zorionez, euskararen aldeko joera horiek areagotzen ari dira guraso gazteenen artean. (...) Hortaz, azken urteotan, euskararen transmisioan gertatzen ari diren joerak positiboak izanik ere, oraindik ez dira lehen hizkuntza euskara izan duten herritarren ehunekoak gora egiteko besteko positiboak izan”.*

Aurreko datuak horrela, ondorio batzuk ere eskaintzen zaizkigu liburuxka horretan; hain zuzen ere, euskarak jasan dituen galerak eta lortu dituen irabaziak aurrekoaren emaitzak edo izan direla.

Galera eta irabazi horiek, bestalde, une berean gertatu izan direla, eta saldoa lurralde batzuetan positiboa eta beste batzuetan negatiboa izan dela agertzen zaigu. Gehiago zehaztuz, agian esan dezakegu, galerak, gehienbat, euskaldun zaharren erruz gertatu izan direla, eta irabaziak azken urteetan jendearengan eragina izan duen kontzientzia hartzearen eta horren fruitu ditugun euskaldun berrien ondorioz..

### **3. Erabilera**

Erabilera dugu, zalantzarik gabe, hizkuntzaren barneko indarraren agerria eta iraupenerako itxaropenaren euskarria. Egin-eginean ere, hizkuntzaren bizi-iraupenerako oinarritzko zutabea. Jendeak erabiltzen ez dituen hizkuntzak galdu egiten dira. Baditugu horrelako adibide garbiak bazterretan. UNESCOk ere, hainbat aldiz gogoratu digu azken urte hauetan milaka hizkuntza aurkitzen direla desagertzeko zorian eta betiko galduko direla mende honetan. Eta halakoen artean euska-



## EUSKARAREN ERABILERA EREMU PRIVATUAN / EREMU PUBLIKOAN

	NAGUSIKI EUSKARAZ						EUSKARAZ GAZTELANIAZ HAINBAT					
	EAE		Nafarroa		Iparraldea		EAE		Nafarroa		Iparraldea	
<b>Eremu pribatua</b>	1991	2001	1991	2001	1991	2001	1991	2001	1991	2001	1991	2001
Amarekin	14	13 +1	6	5 -1	19	11 -8	3	3 -+	0	1 +1	7	4 -3
Aitarekin	12	13 +1	6	5 -1	21	12 -9	2	2 -+	0	1 +1	5	3 -2
Senar/emaztearekin	12	10 +2	4	4 -+	12	8 -4	3	2 -1	1	1 -+	5	4 -1
Seme-alabekin	14	17 +3	6	5 -1	10	8 -2	3	5 +2	1	3 +2	5	4 -1
Neba-arrebekin	13	14 +1	5	5 -+	14	8 -6	3	4 +1	1	2 +1	7	4 -7
Etxean	13	12 -1	6	5 -1	12	7 -5	4	5 +1	1	2 +1	6	5 -1
Lagunartean	10	13 +3	5	5 -+	10	8 -2	5	6 +1	2	2 -+	10	6 -4
<b>Eremu publikoan</b>												
Lankideekin	9	12 +3	9	4 -5	9	5 -4	7	7 -+	1	2 +1	6	4 -2
Dendariarekin	10	12 +2	4	3 -1	6	4 -2	4	5 +1	1	1 -+	6	4 -2
Banketxean	12	16 +4	3	4 +1	3	4 +1	3	4 +1	1	2 +1	6	4 -2
Seme-alaben irakasleekin <sup>16</sup>	17 +1	6	7 +1	5	5 -+	1	2 +1	1	2 +1	5	3 -2	
Udal bulegoetan	13	17 +4	3	6 +3	7	5 -2	3	3 -+	1	1 -+	4	3 -1
Osasun zerbitzuetan	06	10 +4	3	4 +1	2	3 +1	3	4 +1	0	1 -+	2	3 +1
Ertzainekin/poliziarekin	07	06 -1		0		1 +1	3	5 +2	0	1 -+	1	1
Estatuko administrazioarekin	11	03 -8					1	3 +2				

	NAGUSIKI GAZTELANIAZ					
	EAE		Nafarroa		Iparraldea	
<b>Eremu pribatua</b>	1991	2001	1991	2001	1991	2001
Amarekin	1	3 +2	1	1 -+	5	6 +1
Aitarekin	2	1 -1	1	1 -+	6	6
Senar/emaztearekin	2	5 +3	1	2 +1	5	5
Seme-alabekin	2	4 +2	4	2 -2	8	5 -3
Neba-arrebekin	3	5 +2	2	2 -+	4	6 +2
Etxean	3	8 +3	4	1 -3	7	7
Lagunartean	5	9 -4	4	3 -1	9	8 -1
<b>Eremu publikoan</b>						
Lankideekin	4	6 +2	2	3 +1	9	7 -2
Dendariarekin	3	5 +2	2	2 -+	7	8 +1
Banketxean	3	3 -+	1	1 -+	2	4 +2
Seme-alaben irakasleekin	1	2 +1	1	3 +2	5	4 +1
Udal bulegoetan	3	4 +1	1	2 +1	3	5 +2
Osasun zerbitzuetan	2	5 +2	1	2 +1	4	3 -1
Ertzainekin/poliziarekin	2	4 +2			1	3 +3
Estatuko administrazioarekin	1	3 +2				

**Oharra:** hemengo datu guztiak euskaraz dakitenei dagozkienak dira. Gaienerako biztanleak, beraz, erdaraz bizi dira. Eremu batzutan aurrera egiten den artean beste batzuetan alderantziz gertatzen dela ikus daiteke. Datu orokorrak izatean, bestalde, beste laukietan egindako bereizketa kontuan hartuz neurtu behar dira Nafarroan eta Iparraldean (baita EAEn ere) egoera ezerdin ugari ditugulako. Beraz, datu zehatzagoak eskuratzeko begiratu aipatu ditugun bi iturrietara.

raz dituen hiztunak baino hiztun gehiago dituen hizkuntza bat baino gehiago ageri zaigu. Beraz, alor honetan ere benetan ja-kingarriak gertatzen zaizkigu liburuxkako berriak:

*“Gainerako adierazleekin gertatzen denaren antzera, euskararen erabilera ere etengabe ari da behera egiten Ipar Euskal Herrian; ez gora, ez behera Nafarroan; eta gora Euskal Autonomia Erkidegoan.*

*Joera nagusi horiek dira obiko erabilera-eremuetan (familian, lagunartean, esparru formal pribatuan eta publikoan, alegia) euskaraz erdaraz beste edo erdaraz baino gehiago mintzo direnei begiratzen zaienean. Alabaina, euskaraz, erdaraz baino gutxiago bada ere, mintzo direnei erreparatutakoan euskararen erabilera handitzen ari da Euskal Autonomia Erkidegoan ez ezik Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian ere.*

*Hori guztia egia da erabilerari buruzko emaitzak biztanleria osoa kontuan hartuz aztertzen direnean.*

*Alabaina, biztanle guztiak hartzeko partez euskaraz mintzatzeko gai direnak bakarrik hartuz gero, ikus daiteke euskaraz erdaraz beste mintzo direnen proportzioak, Euskal Autonomia Erkidegoan bertan ere, behera egiten duela. Hori gertatzen da, aurreko atalean ikusi berri dugunez, nabarmen gehitzen ari diren euskal hiztunak euskaldun berriak direlako, erdaraz euskaraz baino errazago hitz egiten dutelako eta, oraindik orain, euren harreman-sareetan euskaraz egiteko behar besteko euskaldunik ez dagoelako. Azken batean, euskaraz hitz egiteko behar besteko aukerarik ez dutelako, dela duten erraztasun faltagatik dela norekin hitz eginik ez dutelako”.*

#### **4. Jarrerak**

Euskararen etorkizunean ezinbesteko zerikusia izango du Euskal Herriko biztanleriak euskararen alde egingo duen demak. Izan ere, erronka handia dugu euskaldunok, gure artean ditugun erdaldunak euskararen aldera erakartzeko ahaleginak egiterakoan. Gure artean bizi direnak euskarari babesik eskaini ezik, egin du gureak. Hori dela eta, inkesta honetan hori ere jaso nahi izan dute hizkuntza-egoeraren argigarri gerta daitekeelako.



## EUSKARARI BURUZKO JARRERA HERRIALDEZ HERRIALDE

	NAFARROA	IPARRALDEA	E.A.E.
Datu orokorrak	%	%	%
Oso aldekoa	10	08	13
Aldekoa	32	21	37
Ez alde/ez aurka	42	35	34
Aurkakoa	15	25	14
Oso aurkakoa	02	12	03

*“Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak, azken 10 urteotan, apenas izan du aldaketarik 1966a baino lehen jaiotakoen artean. Eta, gaur egun, adin-talde desberdinen arteko erkaketa eginez gero, hor ere, ez da azpimarratzeko moduko aldaketarik somatzen.*

- *Gebienak euskara sustatzearen aldeko dira Euskal Autonomia Erkidegoan eta Iparraldean, azken lurralde honetan proportzioak zertxobait txikiagoak badira ere.*

- *Nafarroan ordea, aurkakoak dira nagusi. Baina ohartarazi behar da, gaur egun, aurkako jarrera hori duela hamar urte baino dezente txikiagoa dela, 1966a baino lehen jaiotakoen artean. Gainera, gazteenen artean, dezente txikitzen ari da, batik bat, ez aldeko ez aurkako jarrera dutenen mesedetan”.*

## 5. Ondorioak

Aipaturiko liburuxka horretan bildu eta aurkeztutako datuen azalpen eta azterketa zehatzak eskaini ondoren, ondorioak ere ateratzen ditu. Oso gogoan izatekoak, gainera, euskarak azken urte hauetan hainbat alorretan, itxura batean aurrerakada handiak eman baditu ere, oraindik uste dena baino egoera eskasagoan dirauelako.

Hitzez hitz eskaini nahi dizkizuet datu-aztertzaileen irizpi-dea iturri zuzenetik jasotzeko aukera izan dezazuen.

*“Gaur egun, euskarak oso egoera desberdina du lurralde batetik bestera nola familia bidezko transmisioari hala bizkuntza-gaitasunari begiratzen zaionean edota galera-irabaziei, euskararen erabilerari edo euskararen erabilera sustatzeari buruz aritzerakoan.*

Baina desberdintasuna are handiago da azken urteotako bila-kaerari erreparatuz gero. Izan ere, 1991n, euskaraz erdaraz beste edo erdaraz baino gehiago egiten zutenak Euskal Autonomia Erkidegoan bezainbat ziren Iparraldean, 1996a baino lehenago jaiotakoen artean. (...) 2001ean, ordea, kolektibo horren euskararen erabilerak Euskal Autonomia Erkidegoan zertxobait gora egin du eta zertxobait behera Iparraldean. Baina 1966tik 1985era bitartean jaiotakoei erreparatuz gero, begien bistakoa da euskararen erabilerak, batean gora eta bestean behera egiteko kontrako joera bi horiek azkartzen ari direla:

- *Euskal Autonomia Erkidegoan, euskararen erabilera gero eta handiagoa da, euskaraz mintzo diren euskaldun zahar-  
rrak, pixkanaka bada ere, gebitzen ari direlako eta, batez ere,  
euskaraz mintzo diren gazte euskaldun berriak, urterik urte  
gero eta gehiago ugaritzen ari direlako. Euskal Autonomia  
Erkidegoan ere gaztelaniaren erabilera da nagusi toki eta era-  
bilera-eremu gebienetan. Alabaina, euskararen ohiko erabile-  
ra %15etik gorakoa da eta, egunetik egunera, handitzen ari  
da. Gurasoak euskaldunak direnean euskararen transmisioa  
familiar bertan ari da bermatzen, eta ez direnean, eskolaren  
bidez euskalduntzen dira belaunaldi berriak. (...) Aldi berean  
euskaldun berrien proportzioa etengabe ari da gora eta gora.  
Hain zuzen ere, horiexek dira, azken urteotan, euskararen  
erabilerak gora egitea posible egiten ari direnak.*

- *Aitzitik, aldi berean, Iparraldean, hiztunen kopurua gu-  
txitzen ari da, euskaldun berriak, izan badiren arren, oso gutxi  
dira oraindik eta euskaldun zaharrek gero eta gutxiago hitz egi-  
ten dute euskaraz (gazteenen artean apenas dago euskaraz  
frantsesez beste edo frantsesez baino gehiago mintzo den euskal-  
dun zaharrik). Hortaz, euskarak Iparraldean gero eta balio txi-  
kiagoa du, gero eta indar gutxiago: familia bidezko euskararen*

*transmisioak buts handiak ditut; euskaraz dakitenak lehen bizkuntza euskara izan zutenak baino gutxiago dira eta euskaraz egiten dutenak dakitenak baino askoz ere gutxiago; gainera, jorera horiek urterik urte areagotzen ari dira.*

- *Nafarroako egoera, batez bestean, ez da askoz hobe. Egia esan, Nafarroan nekez egin daiteke batez bestekoari buruzko irakurketarik. Izan ere, eremu euskaldunak ezer gutxi du ikustekorik eremu mistoarekin zein eremu ez euskaldunarekin. Eremu biotan euskara, pixkanaka-pixkanaka, biztunak irabazten ari den arren, euskararen erabilera, oraindik, butsaren hurrengoa da. Hortaz, euskararen erabilera arrotza edo ez obikoa geratzen da eguneroko bizitzan.*

Ondorio horien artean, gomendio batzuk ere eskaintzen ditut, egin-eginean ere egoera larritik lehenbailehen irteteko. Laburbilduz honako hauek:

*“Laburbilduz, askotariko egoera hori da etorkizuneko urratsak nondik nora egin erakusten diguna. Tokian tokiko lehentasunak finkatzen asmatzen datza, seguruenik, datozen urteotan, euskarak atzera ala aurrera egitea. Hortaz, bi eratakoak dira lurraldez lurraldeko epe motzeko helburuak eta lehentasunak:*

\* *Batetik, ahalik eta eperik laburrenean, euskararen ahalik eta biztun oso gehien irabaztea familia bidezko bizkuntza-transmisioaren bidez, eskolan euskara eta euskaraz ikasiz edota heldu araoan euskara ikasteko aukerak eskainiz. Euskal Autonomia Erkidegoan, orain arte, horretara zuzendutako egitasmoak sendotzen jarraitu beharko da. Alabaina, Nafarroan eta Iparraldean erabateko lehentasuna du euskarari, lurralde osoan, ofizialtasuna aitortzeak, besteak beste, euren seme-alabak euskaraz hezi nahi dituzten gurasoei aukera hori bermatzeko lurralde biotako bizkuntza-sistemak euskaldundu abal izateko urrats sendoak eman abal izateko.*

\* *Bestetik, euskara eskolan ikasi duten milaka eta milaka euskal biztunen bizkuntza-gaitasuna sendotzeak ere erabateko lehentasuna du. Euskara, beste bizkuntza guztiak bezalaxe, erabiliz hobetzen den komunikazio-tresna bizia da, eguneroko bizitzarako balio digun komunikazio-tresna. Beraz, eguneroko bizitzan euskararen presentzia aktiboago galarazten duten oz-*



*topo fisiko eta mentalak gainditzeak besteko garrantzia eta le-  
bentasuna du komunikazio hori erraztu dezaketen aukerak  
bermatzeak eta areagotzeak, euskarazko produktuak eta zerbi-  
tzuak eskura jartzeak eta, egunetik egunera, areagotzeak”.*

## **Azken gogoetak**

Aurreko lerroetan jasotako datuak aipatu dudan liburuxka-  
tik jasotakoak dira. Liburuxka horren abiabide Euskal Herri  
osoan aldiro egin ohi diren erroldako datuak eta kalean ahoz  
ahõ egin ohi diren inkestak izan dira. Zer esanik ez lan handia  
dugu eskuartean. Hala ere, bai bide batek bai besteak baditu  
bere akatsak. Erroldako erantzunak subjektiboak izaterakoan  
kontuz hartzekoak dira, jendeak euskaraz benetan duen maila  
baino handiagoa duela uste izaten baitu. Kalean egiten diren  
inkestak, bestalde, jendearen unean uneko egoeraren eragin-  
pean jaso ohi da. Halako inkesta bat Begoñan egin zidaten, ni  
Santutxun bizi naizen arren, une hartan medikuarengana nin-  
doala. Beraz Begoña aldeko euskaldunen portzentaia hainba-  
tetan jasoko zuen nire erantzunak.

Idazlan hau taxutzen ari naizen une honetan nire gogoeta  
hauen antzerako zerbait egiten ari direla hainbat lekutan jakin  
izan dut atseginez egunkarien bidez. Horrela, gaur bertan (aza-  
roaren 18an) BERRIAk datu interesgarri ugari eskaintzen dizki-  
gu bere 20. orrialdean “*Diskurtso euskaltzalea aztertu du  
Erizek Iruñean egindako topagunean*” (III. Inkesta  
Soziolinguistikoko Nafarroako emaitzak abiapuntutzat hartu di-  
tu bere ikerketarako).

Horri berean, bestalde, EHEk Miren Azkarateren politikari  
eta orokorrean Euskal Autonomi Erkidegokoari egiten dion  
kritikaren laburpena ere ageri zaigu:

*“Euskal Herrian Euskaraz (EHE) erakundeak, berriz, Eusko  
Jauralaritzako Kultura Sailburua gaur egun egiten duten biz-  
kuntza politikaren alde agertu izana salatu zuen. Halaber,  
egungo bizkuntza eskubideak ez dituela bermatzen, eta hori*



*administrazioaren betebeharrak garrantzitsua bat dela gogoratu zuen. EHEk Azkarateren datu positiboak zalantzan jarri eta eskolak belaunaldi berriak osoki euskalduntzen ez dituela adierazi zuen. Azkenaldian euskalgintza jasaten ari den erasoaren aurrean Azkaratek hitzez eskaintzen duena "ausardia falta eta ezintasuna" dela ere gaineratu zuen"*

Aurkeztu dugun inkestako datuak orokorrean hartuta nahiko egoera larrian ageri zaigu euskararen etorkizuna. Azken hamar urte hauetan aldeko urrats batzuk izan baditugu ere, oraindik ez dugu guztiz geratu euskararen atzerantzako bidea lurralde batzutan ezta finkatu, euskaldunen kopurua ugaritu bada ere, beraren erabilera. Egoera hori aztertzerakoan, bestalde, ezin ditugu beste faktore eragile garrantzitsu batzuk ere alde batera utzi.

1) *Komunikabideak*: gure artean hain ugariak diren eguneroko komunikabideen jokamolde idatziak benetan kezkarriak edo penagarriak dira. Euskara hutsezko komunikabideak ken-

duz gero, gainerakoek (*Gara* salbuespen dugula) ez diote inolako lekurik ematen euskarari edota ematen diona (*Deia*-ren kasua) sinboliko hutsa da. Bestelako komunikabideetan (irriti, telebista eta abarretan) euskarako batzuk baldin baditugu ere, erdara hutsezkoak mila bider ugariagoak eta indartsuagoak dira. Hori jakina, izugarritzko eragozpen-bide dugu euskara berreskuratzeke orduan inguruko hizkuntzak indartzea dakarrelako.

2) *Inmigrazioa*: inkestan aipatu baino egin ez den beste arazo batek ere garrantzi handia izan dezake euskararen etorkizunari begira. Hain zuzen ere, une honetan gure artean gertatzen ari den inmigrazioaren gorakadak. Honetaz Irailaren 18an datu kezagarriak eskaintzen dizkigu BERRIAk 27. orrialdean. Besteak beste honako hau diosku:

*“Espainiako Barne Ministerioko datuen arabera 1986. urtean 7.675 atzerritarrek zuten Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bizitzeko baimena, eta, iaz, berriz, 24.201 ziren zerrendan agertzen zirenak. Hortik kanpo daude, jakina, paperik gabe bizi direnak”.*

*“Baimenarekin daudenen artean, gebienak Hego eta Erdialdeko Amerikatik etorritakoak dira (8.552), ondoren jatorria EBko herrialdeetan izan zutenak (7.092), Afrian gero (4.883) eta Asian ondoren (1.648). Europako Batasunetik datozenen kopurua egonkortu egin den bitartean, hortik kanpo etorritakoenak nabarmen egin du gora aspaldion”.*

*“Etorkinen ume gebienek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hezkuntza sistemaren sare publikoan ikasten dute, A ereduan. Oso gutxi dira oraindik euskara ikasten dutenak, baita ingurune euskaldunetan ere. Oraindik ume gutxi direnez, euren eskolatzek ez du aparteko arazorik sortu ikasgeletan edo nahiko erraz lortu dute bertoko kulturara egokitzea. Erdarazko ereduan dabiltzanez, zailtasunik handiena begoameriketarren seme-alabak ez direnek gaztelania ikasteko izan dutena dela egiaztatzen dute txostena egin dutenek. Etorkinen umeok zailtasunak dituzte, bestalde, gurasoen jatorrizko hizkuntza eta kulturari eusteko”.*

Etorkinen kopuru horiek ugaritzen jarraituz gero, euskaldun hitzunen ehunekoak handitu beharrean, gutxitu egingo zaizki-

gu eta atzerakada gertatuko zaigu. Hori horrela, hainbat gogo-eta kezkarri egitera eraman izan nau bereziki Gasteizen hainbeste etxe bizitza egiten ikusteak. Arabako herrietakoak hiriburura etortzeko hala inguruetako Autonomietako jende erdaldun anti-euskaldunak bertaratzeko izango ote? Horrela gertatuz gero, agian azken urteetan ahalegin itzelak egin ondoren euskararentzat lortutako hainbat eremu berriro galduko genituzke. Alor hau ere lehenbailehen sakonki aztertu behar dugula euskaldunok uste dut.

3) *Irakaskuntza*: inkestan bertan hain faktore eragingarritzat jotzen den alor honetan ere badugu zer konpondu, oraindik. Eta ez bakarrik ofizialtasunik ez duten Lurraldeetan (Iparraldean nahiz Nafarroako lurralderik zabalenean). Euskal Autonomia Erkidegoan bertan ere, oraindik, %40 inguru haur-gaztetxo A ereduan ari dira ikasten. Eta behin eta berriro frogatu izan da A eta B ereduek ez dutela ia inor euskaldun egiten. Beraz, atera hortik ondorioak. Euskalduntzat jotzen den gazte kopuru handia ere ikusi egin behar zenbateraino diren euskaldun edo erdi-euskaldun. Inkestan ere halakoek zailtasunak dituztela euskaraz bizitzeko eta erdara dutela eguneroko hizkuntza aitortzen da.

4) *Pertsona nagusien euskalduntzea*: inkestan adinekoen euskalduntzeari aparteko garrantzia ematen zaio, beraien direlako familia-transmisioa bidera dezaketenak eta baita euskaldunen benetako kopuru eragingarria osotzen dutenak. Beraz, azken aldi honetan agintariek eta euskalduntze-alfabetatze alorrean lanean ari direnek beraien arteko hika-mikak alde batera utzi eta benetako aukerak eskaini beharko zaizkie euskara ikasi nahi duten herritarrei.

Atsegin handiz irakurri dut, lantxo hau zuzentzen ari naizen egun honetan (2003-XI-22) *Berria* egunkariaren lehen orrian honako hau: *Euskaltegi pribatuek akordioa sinatu dute Kultura Sailarekin*. Eta bertako 17. orrian: *Azkaratek eta euskaltegiek konpondu dute urtebetetik gorako desadostasuna-Jaurlearitzak eta zentro pribatuek sinatu duten akordioak*

*behin-behinekoz konpondu du 2003-2004ko ikasturtea, bitariko batzordea sortzeaz gain-*. Bide horretatik jokatu beharra dugula uste dut, adineko pertsonak euskaldundu ezik ez dugulako gure herri euskaldun egingo.

Alor honetan, beste behin nabarmendu nahi nuke, nire ustetan badirela euskararen etorkizunean eragin zuzena izan dezaketen hiru multzo nabarmendu nahi nuke. Egin-eginean ere, seme-alabak D eta B eruedetan matrikulatzea aukeratu duten gurasoak, nahitaezko irakaskuntza bukatzerakoan guztiz euskaldundu ez direnak edo trakets ari direnak eta inmigrazio bidez gure artera etörtzen ari direnak.

5) *Ofizialtasuna ez betetzea*: arazoa, baina ez dugu kanpoko eragin hutsak sortutako zerbait. Euskara teoriaz ofiziala den Euskal Autonomia Erkidegoan ere, arlo batzutan asko aurreratu bada ere, ez zaigu euskaldunoi benetan euskaraz bizitzeko aukerarik eskaintzen. Behin eta berriro urratu ohi dituzte gure agintariak (gogoratu Euskararen Kontseiluko begiratzaileek egindako salaketak) gure hizkuntza-eskubideak, ofizialtasun hori onartu zenetik hogeit hamar urte iragan diren arren. Urrats handiak egin direla? Jakina, baietz. Nahikoa, ordea? Antzik ere ez! Nire ustetan ez dute nahiko ausardiarik izan gure agintariak benetan euskararen ofizialtasun hori bermatzeko. Maiz ageri zaizkigu komunikabideetan ere, hor eta hemen egindako salaketak.

Ikusten denez, badugu pozik eta penarik euskaldunok. Agian, hizkuntzari dagokionez, pozak baino ugariagoak penak. Ea beranduegi baino lehenago jartzen ditugun konponbideak.

*Patxi Uribarren Leturiaga*